

HAURTZARO ETA GAZTEDIAREN

OROIMENAK

Eskoletan 4 urtetik 6 urte bitartean hasten ziren.. Gure eskolari “Eskol Txiki” deitzen zioten, mutiko eta neskak batera joaten ginen. Han maixtra zahar bat egoten zen, bere neskatoa ere gurekin etortzen zen. Eskol Txikiko atarian egoten ginen gu haiek agertu arte, biak ikusterakoan hau kantatzen genion gure eskola zaharreko atarian::
-Joxepa ta maixtra! Joxepa ta maixtra!-Gu denak oihuka.

Eskolan, bakoitzak ahal zuen moduan egoten zen. Gure eskola ez zen estadokoa, herrikoa baizik. Handik ateratzerakoan, 6 urtetik 14 urte bitartean, neskak maistrarekin joaten ziren, mutilak berriz, maisuarekin egoten ziren.

Orain bezala, lehen ere klasean tonto xamarra zirenak ere baziren, baita argiak ere. Gogoratzen naiz behin bazegoela gazteleraz ikasten zuen bat eta irakasleak galdetu zion:
- “El verbo -a ver a... - ¿Con qué se escribe”?

Eta hark erantzun zion:

-“con b”

Eskolan beti maixtra onak izaten ziren. Ikasle aunitz izaten zituzten gu 100 lagun ginen maixtra batekin. Baina noski, handiak ginenek txikiei genekiena irakasten genien. Gero dotrinara joaten ginen neskak eta mutilak batera, dotrina euskaraz ematen zuten baina baita gazteleraz ere. Izan ere carabinero edo polizien seme aunitz baziren Lesakan.

Hauek erretorearenkin ematen zuten dotrina. Dotrinan dena euskaraz abesten zen. Apaizak onak ziren baita jakintsuak ere. Benetan euskaldun trenbeak ziren, guztiz euskalduun garbiak. Dotrinan ere, gure gauzak izaten genituen: Gogoratzen naiz, gotzain berria bageneukala, naparra zen, Remijio Mujika hain zuzen ere. Eta horrela hasi zen galde modua:

-Bai al dakik kredoa?-Esan zuen Remijiok.

-Bai badakit kredoa.-Erantzun zion ikasleak.

Bai badakit esan eta gero, noski kredoa zein den esan beharra da: Sinesten dut aita jaingoiko...

Baina hark ez zuen inolako kredorik ikasi eta ixilik geratu zen Remijiok hau esan zion arte:

-Esazak !

-Ez dakit! -Erantzun zuen besteak.

Gure gaiztakeriak, beti elkarreganakio egindako gaiztakeriak izaten ziren.

Oraingoan gisakoak ziren denak. Gogoratzen dut behin herriko mutil bat olentzero egunean bakarrik utzi zutela, egin zuen txarkeri batengatik. Honek berriz haserrearen haserrez, bere etxera eskatzera abesten joan zirenean, goiko lehiotik gantxo batekin hartu zuen olentzeroa, olentzero eraman zuen berekin!

Gaiztakeriak egiten genituen, haserretu eta gero berriz elkartu. Ez dakit seguruenik oraingo moduan. Haurren arteko txarkeriak...

Oso ondo gogoratzen dut, nola egun batean, karamelo haundi batekin pasa zitzaiguna. Gutxi gora bera, hor baginen 5 edo 6 lagun, denek miatzkada bana egiten genion

goxokiari, batek eskuan hartu, eta batek miatzatu beste batek miatzatu... bira guztia ematen zuen. Bana ba zegoenbat, izugarrizko miatzada eman nahi ziona, hain haundia egin zuen, goxokia irentsi egin zuela, besteari hatzekin ihesi egin batzitzaien. Gu denak korrika joan ginen hura bizkarrean joka goxokia ezin atera. Horrelako gauzak sarritan gertatzen ziren.

Beste behin ere, gizon baten baratzera joan ginen aranak kentzeko asmoarekin. Baratzaren jabeak "Zortxiko" zuen izena. Bertan txabola bat zeukan, txabola kanpotik isten zen. Hark ikusi zuen gu eskolatik etortzen ginela eta segituan txabola barrenean sartu zen, gu ixilka joan ginen eta itxi genion, noski berak ezin zuen atea ireki. Gu bitartean aranak hartu genizkion, hortik minutu pare batzuetara, "Zortxiko" txabolatik atera eta gure atzetik lasterka etorri zen. Gu lasterka ari ginelarik gurekin zebilen mutil batek esan zuen:

-Nora zoaz Rafael?

-Arrapaketan gabilta arrapaketan!" "Zortxikokin" harrapaketan!

Txoriak hartzeko garaia zenean, kabi bila joaten ginen, bakoitzak etxera birrigarro eta txoriak eramaten genituen. Guk bat bagenedukan, nahiz eta sasi tartean zegoen, horrez gain ere goiti xamar zegoen, Beraz, ea han harrautzerik bazegoen ikusi nahi bagenu kontu handiarekin jokatu beharko genuke, izan ere eskuekin ukitzen bagenituen, harrautzeak zapuztu egingo ziren, eta gero txoriak segituan kabia bakarrik uzten zuen, norbait ibili zela nabaritzen baitzuen. Horregatik nere laguna nire bizkar gainean hartu nuen, goira igotzeko ezer ere ukitu gabe kabira hurbildu zen. Eta halako batean:

- Sugea!!!

Ta pa! Behera erori zen nere bizkar gainetik.

Holako gauzak... mutil bera ere, arrantzan ibiltzen zen eta behin kortxoarekim arrantzan ari zen baina gizarajoak ez zuen bakarrik ere asmatzen, nahiz eta franko saiatu arren. Zapa!- sartzen zuen kortxoa. Baina beti kale egiten zuen. Azkenean han bazterrean bazegoen mutiko gizarajo batek esan zuen:

-Eduki zak gehiago! Gehiago eduki zak!

Mutikoak esan zuen bezala egin zuen, baina berriro ere kale egin zuen. Eta berriz ere:

-Eduki zak gehiago, eduki zak gehiago! Igentxi arte! Amua igentxi arte!

Eta orduan berriro ere ahalegindu zen. Zapa! Denbora pixka bat itxoin eta ... sekulako apo bat atera zuen mutiko gizarajoari doi-doi jo zion mutur erdian. Badakizu... horrelako gauzak aunitz izaten ziren.

Jolasteko denbora gutxi izaten genuen. Dotrina ikastera, batzuk musika ikastera, bertso eta kantuak ikasten ibiltzen baikin. Baina noski, pilotan, jokotan, al marro ta beste holako aunitz kukinekordaka denak harrapaketan ere ibiltzen ginen. Batak bertzea harrapatzen pareta ukitu eta berriro ere zinen tokira bueltatu... lagun gehien zituenak irabazten zuen.

Neskak ere bazituzten beraien jokuak, humexurta, harribarota... baita mutilek jolasten genuen harrapaketan hain zuzen ere. Humexurta hartu eta buelta eman Humexurta bildotsak izaten duten besoko hezur bat... "tabas" gazteleraz. Joku horretan ibiltze ziren neskak.

Mutikoak eta neskak elkarrekin ibiltzen ginen, agian 3 anai eta 3 arreba baginen, denak batera ibiltzen ziren bai gaiztakeritan bai jolasean ere. Dotrinara ere elkarrekin joaten ginen baita errosario eta mezara. Eskolatik atera eta arratsaldean "novena" zela eta ez zela arratsalde guztia beti elkarrekin igaroten genuen.

Herriko festetan ere tanborradan eta "korrekallesean" elkarrekin ibiltzen ginen. Baina ez karrikan egoten zen musika konzertuan, izan ere mutilak eta neskak batera ibiltzea, alabeharrez debekatua zegoen. Dantzan neskak bakarrik ibiltzen ziren, baina gero, elkarrekiko gustatzen zen bikotea, gauean bakarrik joaten ziren.

Orduko jokuak ziren ba: pilota, herriko dantzak, olentzeroko abestiak eta zuhaitz eguna. Zuhaitz eguna zenean arbolak landatzen ziren, mutiko eta neskak elkarrekin. Bikote batek planta bat landatzen zuen, bakoitza berea ea zein zegoen ederragoa ta hola... ez zen oraingo bizikletik, motorik ez kotxerik. Pilota batzuk guk egiten genitue sokaz, bizikleta zulatzen baldin bazen soka batez lotu eta hala segi...

Pilotan, eskuz eta palaz aritzen ginen, Lesakatik, esku pilotariak oso onak ziren bai, Españako txapeldun behin baino gehiagotan izan ziren. Palaz ere oso onak ziren.

Musikak ere garrantzi handia izan zuen Lesakan. Duela 140 urte gutxi gora behera badaukagula herriko banda. Lesakako banda Nafarroko lehengoa izan zen. Organista paregabeak ere izan genituen hemen, munduan zehar oso famatuak izan zirenak, Miguel Etxebeste eta Luis Taberna. Parisan eta hortik dauden herrialdetan kontziertuak eman zituzten... Ondoren musika zela medio txaranga bat sortu eta beste herrietako festetara joaten zen Lesakako musika; ez baitzegoen besterik. Mezetan hauek ere abesten

zuten, gero dantzatzeko musika jotzen zuten, eta azkenik pilota partiduak ere heurrek jokatzen zituztenl. Denetarako balio zuten! Horrelakoa zen Lesakako bizia..

Gehiena, orain den bezalakoa zen. Noski, guk ez genituen orain badauden gauzak. Kuarderno bat izaten bagenuen, hura dena eskolan goitik behera betetzen genuen, eskolan “material eskolarrik” ez baitziguten ematen. Beno ematen zuten baina oso gutxi.

Batzuek, besteek baina aukera gehiago zituzten ikasterako garaian, batzuk, Lekarozera joaten ziren eta handik Unibertsitatera... Baina gehienak 14 urte betetzerakoan eskola utzi eta lanera joaten ziren, beste batzuk berriz Argentinara, Cubara edo Ipar Ameriketa joaten ziren.

Musika, nahi zuen guztiek ikasten zuten, baina jendea segidan aspertzen zen eta segituan hasitakoa bertan behera uzten zuten. Udan lan garaian baserritarrak ez ziren eskolara etortzen, haiek negu partean etortzen ziren. Gau eskola ere izaten zen, gau eskola, eskolik gabe gelditu zirenentzat zen. Han, eskutitzak idazten ikasten zuten adibidez. 15 , 18 urte arte joaten ziren harat.

Eskolan ondi joaten baginen saria izaten genuen.Gehienetan turroia edo holako bat izaten zen, gabonetan egiten baitzen sariketa hau. Bazen mutil bat “kapón”deitzen zutena bere baserriak kaponbaita deitzen baitzen.

-“Bueno ja akautu da eskola ta heldu den laruntin izanen dugu premiuak emateko eguna!”

Esan zuen maixuak.

Eta Kaponak erran zuen:

-¡Señor maistro a mi me gusta el turrón!

Eta maisuak erran zuen:

-¿Quien ha dicho que le gusta el turrón?

-Este kapón ! Bere lagun batek .

Orduko txisteak horrela egiten ziren.

— MAITE BIDARTE SOTA

Tel: 637946

Lasata

or
"TOKI-ONA" INSTITUTUA (Bera)

2. DBH